

Errehabilitazio Psikosozialeko Elkarten Espainiako Federazioa - Federación Española de Asociaciones de Rehabilitación Psicosocial (FEARP)

Pº Gral. Martínez Campos, 36 bajo 28010- Madrid <http://www.fearp.org>

Errehabilitazio Psikosozialeko Munduko Elkarteko (WAPR) (www.wapr.info) kide da FEARP.



Zer da errehabilitazio psikosoziala? Profesionalentzako mapa bat

2019ko urriaren 22an hemezortzi urte beteko dira Madrilen Errehabilitazio Psikosozialeko Elkarten Espainiako Federazioa sortu zenetik. FEARPek 2022ra bitartean garatuko dituen jarduketak adin-nagusitasunaren mugarri metaforiko horretan inspiratuta daude, hain zuzen ere, 2018ko uztailaren 18an Madrilen egindako Errehabilitazio Psikosozialaren Munduko Biltzarraren ostean bere gain hartu zituenak. Errehabilitazio psikosoziala Espainian dagoeneko finkatuta dagoen diziplina bat da. Horiek horrela, bildutako ezagutza eta esperientzia profesionalei eta gizarteari helarazteko garaia dela uste dugu.

Lehenengo pausu gisa, FEARPek errehabilitazio psikosozialtzat ulertzen duenaren definizioa ematea proposatzen dugu. Azalpen argi bat emateko asmoz, hamar puntu garatuko ditugu. FEARPek egin duen errehabilitazio psikosozialaren definizioa, nagusiki, gizarte eta osasun arloko profesionalei zuzenduta dago; hala ere, beste arlo batzuetan ere erabilgarria izan daitekeela uste dugu, besteak beste, hezkuntzan, lanean eta arlo judizialean. Horiei guztiei definizio hau bere egiteko gonbita luzatzen diegu, baita herritarrei eta euren ordezkari politikoei ere, zeinek definizio hau baliatu dezaketen baliabide publikoen erabilerak lehenesteko

1. Gaixotasun mental potentzialki desgaitzaile bat jasaten duten pertsonen autonomia mantentzera eta sustatzera, baita pertsona horiek erkidegoan integratzera ere, zuzendutako diziplinarteko praktika bat da errehabilitazio psikosoziala. Errehabilitazio psikosozialaren xedea osatze pertsonala da.
2. Osatze pertsonala giza izaeraz gozatzeko moduko egoera bat ezartzean datza, gaixotasun mental bat jasaten den bitartean giza eskubideen babes aktiboa eta norbanakoa kontuan hartuta. Berritze pertsonaleko prozesu aktibo bat dakar, norberak zehazten duena eta babes profesionalak eta komunitarioak baliatzen dituena.
3. Autonomia pertsonala da parte-hartze komunitarioaren esparruan norberaren identitatea eraikitzeak dakarren arduraz eta aukeraz jabetzea, beharrezko babesekin bizimodu independente bat garatzeko gaitasunarekin batera.

4. Arazo mentalek eragina izan dezakete eginkizun neurokognitiboetan, baita funtzionamendu psikosozialean desgaitasuna eragin eta eguneroko bizitzako jarduerak gauzatzeko funtzionaltasuna urritu ere. Rol sozialak gauzatzeko mugak ere jar ditzake. Bestalde, gaixotasun mentalen arazoaren inguruko sinesmen kulturelek ere horien inpaktu pertsonala handitu edo murrizten dute.
5. Diziplina anitzeko arloa den heinean, sistema konplexuei aplikatzeko moduko eredu teorikoak baliatzen ditu errehabilitazio psikosozialak.
6. Osasun mental komunitarioko arreta integralaren eredua da errehabilitazio psikosozialaren arreta-esparrua. Gaixotasun mental bat jasaten duten pertsonen tratamenduaren eta ebaluazioaren parte izan behar du horrek, arreta ematen hasten den unetik hasita; gainera, beste esku hartze mediko, psikologiko eta sozialekin integratu behar da.
7. Errehabilitazio psikosozialeko esku-hartzeek ezagutza zientifikoa dute oinarri eta jardunbide egokiek gauzatzen dira. Horiei esker, esku-hartzeak individualizatu egin daitezke, giza duintasunaren unibertsaltasuna eta norbanako bakoitzaren aniztasun biologikoa, kulturala eta biografikoa kontuan hartuta, baita errehabilitazioan dagoen pertsonak berak esku-hartzeari eta autodeterminazioaren lehentasunari ematen dion zentzua kontuan izanda ere.
8. Errehabilitazio soziala praktikan jartzeko teknikak oso ugariak dira. Bizi-zikloaren etapa guztietan aplika daitezke, nahiz eta gazteen artean bereziki garrantzitsuak diren. Teknikak pertsona bakoitzaren beharrietara egokitu behar dira, eta ez alderantziz; eraginkorrak diren bitartean iraun behar dute.
9. Ikuspuntu integral eta holistiko bat behar da, errehabilitazioan dauden pertsonak alderdi biologikoen, egoera soziokulturalaren edo subjektibotasunaren arabera modu okerrean murriztea saihesteko.
10. Norbanako bakoitzaren elementu biologikoen, sozialen, funtzionalen, kulturalen, psikologikoen eta biografikoen integrazioak eta analisiak ematen dute osatzeko aukera nagusia, norbanako bakoitzaren sendotasunak eta ahuleziak kontuan hartuta.

Madrilen, 2019ko urtarrilaren 26an

Errehabilitazio Psikosozialeko Elkartearen Espainiako Federazioa - Federación Española de Asociaciones de Rehabilitación Psicosocial (FEARP)